


Europako Mugikortasun Astea, 2011ko irailaren 16tik 22ra

EAEko hiru gaztetik bik diote euren herritik oinez edo bizikletaz ibili ohi direla. Beste horrenbestek garraio publiko kolektiboa erabiltzen dute edo kotxea partekatzen dute.


Europako Mugikortasunaren Astea dela eta, EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteek mugikortasun iraunkorrari lotuta dituzten azturei buruzko hainbat datu aztertu ditu [Gazteen Euskal Behatokiak](#). Behatokiak berak 2010eko azaro-abenduetan egindako ikerketa batekoak dira.

Ikerketaren arabera, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen %64 oinez edo bizikletaz mugitu ohi dira euren herritik; %15 noizbehinka; eta gainerako %21 ez dira inoiz edo ia inoiz horrela mugitzen euren herritik.

Oinezko edo bizikletazko joan-etorriak ohikoagoak dira Bizkaian (%66) eta Gipuzkoan (%64), Araban baino (%59); udalerrri ertainetan (%68) eta hiriburuetan (%64); emakumeen artean (%67) eta 20 urtera artekoengan (%71). Adinean gora egin ahala, ehuneko horiek behera egiten dute.



Era berean, %64 dira garraio publiko kolektiboan edo autoa partekatuta mugitu ohi direla dioten gazteak. %19k diote noizbehinka mugitzen direla horrela eta %16k inoiz ez edo ia inoiz ez. Joan-etorriak egiteko modu honetan, kolektiboen arteko aldeak nabarmenagoak dira: jokaera hori ohikoagoa da Bizkaian (%74), udalerrri ertainetan (%68) eta hiriburuetan (%67), emakumeen artean (%71) eta 20 urtera artekoengan (%78). Adinean gora egin ahala, aldaketa handiak daude joan-etorriak egiteko moduetan.



Lan egiten duten gazteek neurri txikiagoan esaten dute oinez zein bizikletaz (%53) edo garraio publikoan nahiz ibilgailua partekatuta mugitzen direla (%51). Jokaera hori, hein handian, joan-etorriaren distantziak eta toki fisikoak baldintzatzen dute, batetik, eta, bestetik, kolektibo horrek diru gehiago duelako eskura, norberaren autoa erostea errazten duena.

Etorkizunera begirako asmoei dagokienez, EAEko gazteen %83k diote prest leudekela garraio publiko kolektiboan, oinez edo bizikletaz mugitzeko, energia aurrezteko kanpaina baten barruan.

Mugikortasun iraunkorraren ereduari jarraitzeko prestasun handiagoa erakutsi dutenak, izatez, jokaera hori neurri handiagoan jarraitzen dutenak dira: Bizkaian bizi diren gazteak (%86), udalerrri ertaintetan (%86) edo hiriburuetan (%85), emakumeak (%88) eta 20 urtera artekoak (%91).

